

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LUIAONDOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Behin betiko onespena ematea bideak eta baso pistak erabiltzeko zerga ordenantzari

Kontzeju honek, 2019ko uztailaren 16ko bilkuran, hasierako onespena eman zion ondoren azaltzen den auzolanen ordenantza onartzeko espedienteari. Jendaurrean egon den bitartean haren aurkako erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, ordenantza behin betiko onetsita geratu da. Beraz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70.2 artikuluan, eta Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1986 Foru Arauak 16. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, oso-osorik ematen da argitara, indarrean sar dadin. Honelaxe dio hitzez hitz ordenantzak:

1. artikulua

Baso ustiapenetatik egurra ateratzeko ibilgailuek bide publikoetan egiten dituzten kalteak kontuan hartuta, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 07/1985 Legearen 25.2d artikuluan eta Toki Korporazioen Ondasunen Erregelamenduaren 77. artikuluan ezarritakoaren babesean, Luiaondoko Kontzejuak arautzen du nola erabili, herriaren eta, oro har, bizilagunen interesak babesteko, bide publikoak erabilera onean mantenduz.

2. artikulua

Baimenari loturik egongo dira Luiaondoko herriko mendietatik baso produktuak ateratzen dituzten ibilgailuak, Luiaondoko herriaren bideak eta baso bideak erabiltzeko.

3. artikulua

Garraiatu behar diren eta aurretik aipatutako bideak erabiltzea behar duten produktuen jabeek beharrezko baimena eskatu beharko diote Luiaondoko Administrazio Batzarrari, ondoko datu hauek adieraziz:

Eskatzailearen identifikazio datuak: atera behar diren produktuen jabearen NANA, helbidea eta telefonoa.

Mozketa egin behar duen enpresaren identifikazio datuak. IFZ, helbidea eta telefonoa.

Baso ustiapena egiten den mendiaren identifikazio datuak.

Mozketa edo entresaka egiteko baimenaren kopia, basozainaren idazkia, bolumena este-reotan, tasazioa eta kubikazioa.

Lanak hasiko eta bukatuko diren egunak.

4. artikulua. Deialdia

Ondoko tasa eta fidantza hauek ezartzen dira Luiaondoko Administrazio Batzarraren bideak eta parke edo kargalekuak erabiltzeko.

Luiaondoko Administrazio Batzarraren lurretan dauden mendien tasak:

0.24 euro/estereo lur edo zepazko bideak erabiltzeagatik.

0.30 euro/estereo asfaltzoko bideak erabiltzeagatik.

0,30 euro/estereo parkeak edo kargalekuak erabiltzeagatik.

Fidantza:

3.30 euro/estereo lur edo zepazko bideak erabiltzeagatik.

5.38 euro/estereo asfaltozko bideak erabiltzeagatik.

Luiaondoko Administrazio Batzarraren lurretan ez dauden mendien tasak:

0,30 euro/estereo bideak erabiltzeagatik.

0,30 euro/estereo parkeak edo kargalekuak erabiltzeagatik.

Fidantza:

4,72 euro/estereo bideak erabiltzeagatik.

Tasen zenbatekoa aipatutako bideak mantentzeko eta hobetzeko erabiliko da.

5. artikulua. Auzolanak nola egin

Fidantza titularrari itzuliko zaio produktuak ateratzen bukatu eta erabilitako bidearen nahitaezko egiaztaketa eginda gero.

Kargatzeko lekua edo zurezko parkea erabiliz gero, erabiltzaileak garbi utzi beharko du, zuraren, soberan gelditutako apeen eta zura moztu izanaren arrastorik gabe. Horretarako, administrazio batzarreko teknikari batek erabileraren aurretik eta ondoren ikustaldia egingo du, eta bide, parke edo kargalekuaren egoeraren inguruko txostena egingo du.

Txosten hori fidantza jarri duenari bidaliko zaio 15 eguneko epearen barruan egokia deritzon guztia alegatu dezan.

Epe hori igarota, administrazio batzarrak erabakia hartuko du fidantza itzultzeari buruz, edo kalteak konpontzeko eskatu eta fidantza osorik edo partez kalte horiek konpontzera bideratu ahal izango du.

Bide, parke edo kargaleku horren erabiltzaile bat baino gehiago bada eta horietako bati bakarrik egozteko ez den kalterik baldin badago, erabiltzaileen artean banatuko da erantzukizuna, ateratako produktuen bolumenaren proportzioan.

Nolanahi ere, onuradunek zirkulazioari kalterik ez egiteko behar diren neurri guztiak hartu beharko dituzte aurrez, eta ezin izango dituzte bideak enborrez edo zuhaitz adarrez okupatu.

6. artikulua

Ordenantza honi jaramonik egin ezaz edo hura hautsiz, beharrezko baimena eduki gabe basoko produktuak bide eta pista publikoetatik garraiatzen hasten direnei, jarri beharreko fidantzaren ehuneko 10 jotzen duen zigorra jarriko zaie eta, gainera, debekatu egingo zaie garraiatzen jarraitzea beharrezko baimena lortzen ez duten bitartean.

AZKEN XEDAPENA

Kontzeju honetako auzoko batzarrak 2019ko uztailaren 16ko bilkuran onetsi zuen ordenantza; ALHAOn osorik argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta halaxe jarraituko du aldatzea erabaki arte.

Luiaondo, 2019ko irailaren 24a

Lehendakaria

MAITE ALONSO DE LA VALLINA